

**Euskadiko bezeroen ordainketak % 4 haziko dira, 2023ko Black Fridayrekin alderatuta**

## **Kutxabankek 100 milioi eurotik gorako erosketak aurreikusi ditu Black Friday astean**

- Ostiralean bakarrik, 20 milioi euro baino gehiago ordainduko dira txartel bidez, batez ere elikaduraz bestelako kontsumoan (gastua bikoiztuko litzateke) eta txikizkako merkataritzan
- Erosketek gora egingo dute kategoría guztietan, eta jatetxeetako kontsumoa % 20 haziko da ostiralean, jarduera komertzial handiagoak eraginda
- Euskadiko bezeroek ostiral arrunt batean baino % 63 gehiago erosiko dute txartelekin, eta % 41,4 gehiago erabiliko dute ordainbide hori
- Bankuak gomendatzen du erabiltzea txartel birtualak eta ordainketa seguruko plataformak Internet bidezko erosketetan, eta kontuan hartzea iruzurraren eta zibereraso ohikoenen aurkako jardunbide egokiak

**2024ko azaroaren 25a.** Kutxabanken aurreikuspenek adierazten dute Black Friday kanpaina kontsumo-aldi garrantzitsu gisa finkatu dela Euskadin. Aste honetan, bezeroen txartelekin, 100 milioi eurotik gorako erosketak egingo dira erkidegoan, 2023ko Black Fridayn baino % 4 gehiago.

Azaroaren 29a (ostirala) izango da erkidegoko herritarrek erosketa gehien egingo duten eguna: bankuaren aurreikuspenen arabera, egun horretan 20 milioi euro baino gehiago ordainduko dituzte bezeroek txartel bidez, batez ere elikaduraz bestelako kontsumoan (gastua bikoiztera irits daiteke) eta txikizkako merkataritzan.

Txartelekin eginiko erosketak iazko Black Fridaykoak baino handiagoak izango dira, kategoría guztietan, eta jatetxeetako eta tabernetako kontsumoa % 20 haziko da ostiralean, jarduera komertzial handiagoak eraginda.

Ostiralean, Kutxabankek Euskadiko bezeroek, ostiral arrunt bateko batez bestekoa baino % 63 gehiago erosiko dute txartelekin, eta % 41,4 gehiago erabiliko dute ordainbide hori ohiko egun batean baino. Erosketa bakoitzeko batez besteko gastua handitu egingo da 39,8 eurora arte, ostiral arrunt batean baino % 15,6 gehiago.

### **Ordainketa segurua eta iruzurraren aurkako gomendioak**

Astean zehar egingo diren eragiketa birtualen gorakada handia dela-eta, Kutxabankek gomendatzen du txartel birtualak erabiltzea Internet bidez erosteko. Txartel horiek, seguruagoak, ez dute behartzen txartelaren zenbakia ematera, gezurrezko txartel-zenbaki bat sortzen delako erosketa bakoitzerako, gehieneko muga batekin eta aukeratutako iraungitze-datarekin. Zerbitzu hau doakoa da Kutxabanken online bankaren erabiltzaile guztientzat.

Gainera, garrantzitsua da erabiltzea saltokien ordainketa seguruko plataformak, beste bide batzuk ez erabiltzea, bai eta jakinarazpenak aktibatzea ere, bezeroak abisu bat jaso dezan eragiketa batean zenbateko jakin bat gainditzen den bakoitzean eta, horrela, berehala erantzuteko aukera izan dezan gorabeheraren bat izanez gero.

Kontuak eta eragiketak arrisku potentzialen aurka babesteko moduari buruzko informazioa:

<https://portal.kutxabank.es/cs/Satellite/kb/es/particulares/seguridad-2>

Zibereraso ohikoenak saihesteko aholkuak:

<https://portal.kutxabank.es/cs/Satellite/kb/es/particulares/blog/consejos-para-que-puedas-evitar-los-ciberataques-mas-frecuentes/generico>